



LHren NAZIOARTEKO KONGRESUA
Etorkizunari aurrea hartzen
CONGRESO INTERNACIONAL DE FP
Anticipando el futuro

2018-05-30 KURSAAL 30-05-2018

Lehendakariaren hitzaldia-Discurso del Lehendakari

Sailburuok, herri agintariok, jaun andreok, egunon. Ongi etorri, welcome to Euskadi Basque Country. Eskerrik asko denoi Nazioarteko lan topaketa honetan parte hartzeagatik.

Bizi dugun momentua berezia da. Etorkizunean aldaketa esanguratsuak gertatuko dira eta, horiei aurre egiteko, ezinbestekoa da uneoro izatea aldaketetara egokitzeko ahalmena. Ahalmen hori da, hain zuzen, Euskadiko Lanbide Heziketaren ezaugarri nagusienetako bat. Etengabe bir-aldatzeko ahalmenaz ari naiz.

El futuro depara importantes transformaciones que nos obligan a mantener una actitud de adaptación permanente. La Formación Profesional demuestra, con hechos, la disposición al cambio y la mejora continua.

Destaco tres características que definen a la Formación Profesional vasca:

- formar con una visión integral;
- favorecer el vínculo con la empresa y la empleabilidad de las personas; y
- la apertura al escenario global y el mercado internacional.

La Formación Profesional Vasca tiene un modelo dinámico que está sabiendo adaptarse, con efectividad, a la nueva realidad del tejido productivo. Los cambios van a conformar un modelo social diferente.

Se están produciendo cambios de gran relevancia: reestructuración del mercado de trabajo; avance de las innovaciones tecnológicas; automatización de los procesos productivos; nuevas formas de organización y gestión; rápida transformación de las técnicas y equipamientos. Es lógico que los sectores productivos demanden cambios en la Formación Profesional.

Este es el reto que abordamos y el sentido que damos a este Congreso internacional que nos permite intercambiar experiencias y seguir mejorando.

Gure egungo eredu soziala, ekonomikoa eta produktiboa hobetzeko, ezinbestekoa da eboluzionatzea. Lanbide Heziketan, jarrera horren frogari argiak dauzkagu:

- pertsonari prestakuntza integrala ematen dio;

- enpresarekiko gertutasuna eta laneratzea bultzatzen ditu; eta
- munduari eta nazioarteko merkatuari begira dago.

Euskadiko Lanbide Heziketak etengabeko hobekuntza-eredu bati jarraitzen dio eta, hari esker, asmatzen ari da gaur egungo errealitate lehiakorrera egokitzen.

Europako Batzordeak adierazi du 2020garren urterako lanean ariko den biztanleria aktiboaren ehuneko 15 bakarrik izan ahalko dela ez-kualifikatua. Datu hori Euskadira ekartzen badugu zera esan dezakegu: zifra horrek ezingo duela inolaz ere gainditu ehuneko hamarra. Horrek esan nahi du lanpostuen ehuneko 90erako kualifikatutako edo oso ongi kualifikatutako pertsonak beharko ditugula.

Hezkuntzaren erronka lehentasuna da Euskadirentzat, eta Lanbide Heziketa funtsezkoa da erronka horri erantzuteko. Lanbide Heziketaren baitan prestakuntza-eredu praktikoa bat garatu da, enpresari estuki lotua eta eredugarria. Lanbide Heziketa duala da horren adibide. Eskarmentu eta ibilbide dual horren ereduak unibertsitateko prestakuntzara igaro da orain.

La Formación Profesional está adquiriendo una importancia estratégica para la competitividad y el avance de nuestro tejido productivo y la empleabilidad de las personas. Estas personas son las que van a abrir los nuevos caminos innovadores que necesitaremos en el futuro con conocimiento, creatividad y talento. La mejor fuente de cambio e innovación es la persona que piensa.

En este sentido, en lugar de una actitud reactiva, la Formación Profesional mantiene una actitud de anticipación, adelantándose y centrando sus esfuerzos en la necesidad de trabajar de otra manera, con otras metas y objetivos. Trabajar con un tipo de organización diferente, con una visión de futuro moderna y una forma de hacer distinta. Un modelo que se apoya en un trabajo colaborativo y de cooperación entre personas y organizaciones y, sobre todo, entre los Centros de Formación Profesional y empresas.

Es imprescindible que esta colaboración aumente para ir creando sistemas dinámicos que prosperen en entornos cambiantes y nos aseguren que: Formación, Cualificación, Sectores productivos y Mercado de trabajo avanzan coordinados por el camino adecuado.

La Formación Profesional forma parte de la vanguardia en la respuesta a este reto. La semana pasada hemos anunciado los primeros 22 títulos universitarios duales. Es cierto que Universidad y Formación Profesional tienen matices diferentes, pero no cabe duda de que la trayectoria y resultado de la FP Dual ha sido un referente para poder dar este nuevo paso adelante. La Formación Profesional ha desarrollado un modelo de formación práctica de vinculación con la empresa que ha abierto un camino ejemplar.

Etorkizunari begira jarraitu behar dugu. Aurten, Lanbide Heziketaren bosgarren Plan Estrategikoa onartuko du Eusko Jaurlaritzak. Plan horren helburua Lanbide Heziketa eraldatzea da, laugarren iraultza industrialari erantzuteko.

Lanbide Heziketak aurrea hartzen die premiei. Badaki egokitzen. Aldatzen. Bere burua berriz asmatzen. Ingurune konplexuetan dihardugu, konponbide eraginkorrak eskatzen dituzten inguruneetan, hain zuzen; eta, horietan jarduteko, profesionalik onenak behar ditugu. Ahalegin berezia egiten du, baita ere, emakumea erakartzeko, industria arloko lanbidetan batez ere.

El impulso a la Formación Profesional es estratégico para el Gobierno Vasco. Así lo demuestra el trabajo coordinado entre el Departamento de Educación y el Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras. La Formación Profesional de Euskadi busca anticipar el futuro. Se adapta a la revolución digital. Se transforma. Trata de responder también a la incorporación creciente de la mujer, muy especialmente en el ámbito industrial.

El Gobierno Vasco aprobará este año el quinto Plan Vasco de Formación Profesional. Un Plan estratégico dirigido a transformar la FP para dar respuesta a la cuarta revolución industrial. Liderar la digitalización, impulsar la formación dual y avanzar en la incorporación de la mujer a la industria conforman un objetivo de País.

Bide honetan nazioarteko lan topaketa hau zinez interesgarria izatea espero dugu eta, horrezaz gain, goza ezazue zuen egonaldiaz Donostian eta Euskadin.

Eskerrik asko!